

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

(Gure bezeroei berritasuna, lan erraztea eta erabilerraztasuna proportzionatzen diegu).



Gure itzalkia hainbat pertsona eta kolektiboren arazoak konpontzeko gai izanen da. Horietako adibide garbi bat, adineko pertsonen arazoa da. Izan ere, hauek gehienbat, udazkenean Benidorm eta kostako beste leku batzuetan daudenean zerbikal eta bizkarreko beste arazo batzuk ekiditeko erabilgarria da. Bestalde, gazteen bizkarren etorkizunerako baliagarria da. Edozein adinetako jendeak itzalkia instalatzeko arazorik ez du edukiko. Azkenik, haizeak itzalkia mugitzea ezinezkoa du eta itzalki hegalaria arazoa ekiditen dugu eta baita gailu elektronikoak kargatu.

Gure berezitasun garrantzitsuena, natura errespetatu eta gizartearen aberastasuna bilatzen dugula da. Etekin ekonomikoak bilatzen ditugu, bai, baina ez ditugu prezio oso altuak bilatzen, prezio eskuragarriak jartzen ditugu edonork erosi ahal izateko eta onurak gehiengoak izateko. Produktua merkeago saltzean, jende gehiagok eskuratuko du itzalkia, ondorioz, arrakasta sortuko du. Honetaz gain, material birziklatuak erabiliko ditugu eta hondakinak berrerabiliko ditugu, modu honetan, natura eta gure planeta ahalik eta gutxien kaltetuko dugu. Bukatzeko, erraztasuna eskaintzen dugu, mugimendua edo zailtasunak dituzten pertsonak errazago erabili ahal izateko eta edonorentzat erabilgarria izateko. Gure enpresan balio kualitatiboari ematen diogu garrantzia, hau da diseinuari.